



BERRIOZARKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA 2017ko OINARRIAK

1. Lehiaketan Berrioizarko jaiekin lotutako gaiak aurkeztuko dira. Egile bakoitzak, gehienez, 3 lan aurkeztuko ditu. Lanak jatorrizkoak izanen dira.
2. **2 kategoria** izanen dira:
Haurrak: 14 urte baino gazteagoak
Helduak: 15 urte baino zaharragoak
3. **Neurria:** Helduen lanak: 30 x 42 cm, zutikako formatuan.
Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira (luma-kartoia edo antzekoa)
Haurren lanak: 15 x 21 cm, zutikako formatuan.
4. Kartelen **estiloa eta teknika** libreak dira. Irabazleak multimedia-teknika erabiliz gero, Udalak lan irabazlearen kopia CD batean ematea eskatu ahalko dio.
5. Lan guztietan honako testua idatziko da:
Fiestas de Berrioizarko del 30 de agosto al 3 de septiembre de 2017
Berrioizarko Jaiek 2017ko abuztuaren 30etik irailaren 3ra.
Lanak jatorrizkoak eta argitaratugabeak izanen dira.
Lehiaketatik kanpo geratuko dira baldintza horiek betetzen ez dituzten kartelak.
6. Kartelak **Berrioizarko Udaletxeko Auzo-Bulegoan aurkeztuko dira** (Euskal Herria plaza, 1, 31013 Berrioizarko) maiatzaren 22tik ekainaren 2ra, goizeko 8etatik 14etara.
7. Kartelak gutunazal itxi batean aurkeztuko dira egilearen sinadurarik gabe eta aukeratutako izenburua idatzita. Beste gutunazal batean, itxita eta izenburu bera idatzita, egilearen datuak sartuko dira: izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, adina, helbidea, herria eta telefonoa; baita aurkeztutako lanaren esanahiari eta motibazioari buruzko azalpen laburra ere.
8. Kartelaren izenburua gaztelaniaz, euskaraz edo bi eletan aurkeztuko da. Hizkuntza bakarra aukeratzen bada, Berrioizarko Udalak itzulpena egiteko eskubidea izanen du.
9. **Epaimahaia** Kultur Koordinakundeko kideek eta langile teknikoek osatuko dute. Koordinakundeburua izanen da epaimahaiburua.
Kultur Teknikariak idazkari lanak eginen ditu (hitza izanen du eta botorik ez)
Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da eta ohiko hedabideen bitartez jakinaraziko da.
10. **Sariak:** helduen kategorian sariak eskudiruzko ordainketak izanen dira (izendun txekeak, dagokien PFEZ kenduta). Haurren kategorian, sariak herriko dendetan trukatzeko baleak izanen dira.
Helduak: 600 euro
Helduak (berrioizartarrak): 300 euro
Haurrak: 150 euro
11. Berrioizarko Udala izanen da saritutako kartelen jabea. Berrioizarko Udalak kartel sarituen nahi adina erreproduzio litografiko edo bestelakoak egin ahalko ditu, nonahi erabiltzeko, eta egileek ez dute inolako erreklamaziorik egiterik izanen.
12. Berrioizarko Udalak erakusketa antolatuko du abuztuaren 16tik 29ra parte hartutako kartel guztiekin edo horietako batzuekin. Kartelak aipatu erakusketa bukatu eta hilabeteko epean itzuliko dira.
13. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Arau hauetan airreikusi gabeko edozein zalantza edo gorabehera epaimahaiak ebatziko du.